

ZIBERGela

■ PEGI TAULA

Jokoa zein adinetatik gora den egokia



Jokoaren edukia

**Diskriminazioa**

Jokoak bereizkeria bultzatzen duten elementuak izan ditzake.

**Drogak**

Drogen erabilera aipatzen du, edo drogen erabilera erakusten du.

**Beldurra**

Haurak izutu ditzake jokoak.

**Hizkuntza zantarra**

Hitz gordin edo itsusiak ditu jokoak.

**Sexua**

Biluzik ateratzen dira edo sexuaz dihardu.

**Indarkeria**

Gertaera bortitzak ditu jokoak.

Bideo-jokoak ezagut ditzagun



Oinarritzko ideia batzuk ezagutzea nahikoa da bideo-jokoak egoki hautatu ahal izateko

JOSU WALIÑO
Elhuyar fundazioa

Jolasteko moduak aldatu egin dira, eta duela urte gutxi bideo-jokoak tabernetako makinetan ikusten genuen mundu miragarria baino ez baziren ere, gaur egun gertutik bizi dugun fenomeno da. Haurrek bideo-jokoetarako duten zaletasunak kezka sortzen du askotan. Kontuan izan behar da, ordea, jolasteko moduak aldatu egin direla belaunaldi belaunaldi, eta belaunaldi honek eduki digitalak oso modu zuzenean bizi dituen, onartu beharra daukagu bideo-jokoek gure seme-alaben aisialdian duten garrantzia.

Horrenbestez, bideo-jokoak erostean ondo aukeratzea gure ardua da, gure seme-alaben aisialdia egokia izatea nahi badugu. Bideo-jokoak erostea gurasoen esku dagoenez, komeni da erosi aurretik informazio pixka bat izatea; baita, ahal dela, bideo-jokoak ezagutzen saiatzea eta etxean jokoan parte-hartzaile aktibo bihurtzea ere. Dena den, nahikoa da oinarritzko kontzeptu batzuk ezagutzea, bideo-jokoak hautatzeko garaian lasaitasunez aritu ahal izateko.

Joko-plataformak

Kontuan izan era askotako joko-plataformak daudela, eta bakoitzak bere ezaugarriak dituela. Oso modu laburtuan, honela multzokatu daitezke:

■ **Etxeko bideo-kontsolak.** Arazorik gabe jolasteko egokiak dira, baina

bakoitzak bere ezaugarriak ditu: PS2 eta XBOX ekintza, futbol eta abenturazko jokoetarako dira nagusiki; PS3 maila altuko jokalarientzat da; eta Wii, familian eta lagunekin jolasteko.

■ **Bideo-kontsolerangarriak:** NintendoDS adin guztietarako da, eta era guztietako jokoak dauzka; PSP PlayStation-en bertsio eramangarria dela esan daiteke; eta Game Boy haurrentzako kontsola da.

■ **Ordenagailua eta Internet.** Ordenagailuan eta Interneten mota guztietako jokoak erabili daitezke, eta kontsoletan baino aukera zabalagoa dago. Bideo-joko didaktikoak ere badaude ordenagailurako, kontsoletarako ez bezala. Ordenagailuaren abantaila bat da jokatzeko gain bestelako erabilerak ere badituela, eta, hori dela eta, haurraren gelan jartzeko aragozpen gutxiago egon daitekeela.

Ezaugarri horiek aztertzea komeni da joko-plataforma hautatzeko, emango zaion erabileraren arabera aukeraketa egiteko.

Jokoen egokitasuna

Bideo-joko bat erosi aurretik nola jakin haurrentzat egokia den ala

ez? Badaude horretarako bideak, eta jokoen kaxan haren egokitasun-maila neurtzeko behar den informazio guztia egoten da. Pelikuletan adinak sailkatzeko sistema bat dagoen bezala, bideo-jokotarako ere PEGI (<http://www.pegi.info>) izeneko sistema dago. PEGI da bideo-jokoen industriak onartutako estandarra, eta horren bitartez neurtzen da joko baten egokitasuna adin bakoitzerako, bai eta nolako edukia dituen ere. Ikono batzuen bitartez adierazten da jokoak biolentzia, sexua edo bestelako edukia dituen, bai eta zer adinetarako den egokia ere. Taulan ageri dira PEGIren erabiltzen dituen ikurrak eta bakoitzaren esanahia.

Dena den, kontuz ibili behar da adinaren azalpenarekin, PEGI adina edukien arabera sailkatzen baitu, ez jokagarritasunaren arabera. Adibidez, xake-joko bat hiru urtetik aurrerako haurrentzat egokia dela adieraziko du PEGI, biolentziarik edo sexurik ez duela; baina horrek ez du esan nahi hiru urteko haurrak xakean joki daitezkeenik.

Euskarazko bideo-jokoak

Jokoak aukeratzeko garaian, hizkuntza ere kontuan hartu beharreko faktore bat da. Merkatuan gehien ikusten diren bideo-jokoak modan dauden edo marketin handiena duten jokoak dira; baina kontuan izan, apalagoak izan arren, euskarazko bideo-jokoak ere badaudela, kalitate handikoak, gainera. Euskaraz bideo-joko ludiko gutxi dago, garestia baita horrelakoak ekoiztea, eta marka komertzial handiek ez baitute

Helbidea

Pandora entzuteko modua

Lehen ere hitz egin dugu hemen Pandorari buruz. Internet bidezko irrati-zerbitzu bat da Pandora, eta bereiztasun nagusi hau du: erabiltzailearen neurria egindako irrati du, hau da, erabiltzaileak bere musika-zaletasunak adierazten ditu (artista edo abesti baten izena emanez), eta, horren arabera, neurria egindako musika-irratia sortzen du Pandorak, erabiltzailearen gustuko artista edo abesti horren antzekoak diren abestekin. Baina legera arazoak direla eta, zerbitzu hori AEBetara mugatzea erabaki zuten duela hilabete batzuk, eta, harrezkero, ezin da Pandorara konektatu Europatik. Hori gaitzetzeko, webgune bat sortu dute orain, ordea: GlobalPandora izeneko webgunetik arazorik gabe konektatu daitezke Pandoraren zerbitzura munduko edozein tokitatik. Hau da helbidea: <http://globalpandora.com>

Trikimailua

Nire mezua irakurri ote dute?

Posta elektronikoa kudeatzeko programak, hala nola Microsoft Outlook edo Thunderbird, erabiltzen ditugunean, erraza da mezu elektronikoko baten hartzaileak mezua jaso duen edo ez jakitea. Horretarako, nahikoa izaten da «Hartu agiria» aukera aktibatzea mezua idaztean, eta automatikoki iritsiko zaigu hartzailearen hartu-agiria gure mezua zabalitzen duenean. Aukera hori ez da erabilgarri egoten, ordea, webmail zerbitzuak erabiltzean. Gmail, Hotmail eta horien tanke-rako zerbitzuak erabiltzaileek ezin dituzte hartu-agiriak eskatu beren mezuentzat. Hori konpontzeko, SpyPig webguneak hartu-agiriak jasotzeko zerbitzua eskaintzen du. Hau da helbidea: <http://www.spypig.com/>

aukerarik ematen beren jokoak euskaratzeko; baina pixkanaka hasi dira gutxi batzuk euskaratzen. Bideo-joko didaktikoen kasuan, aukera askoz zabalagoa da, ekoizpena merkeagoa denez, Euskal Herrian bertan garatutako produktu asko eta onak baitaude euskal merkatuan.

Zoritzarrez, ordea, bideo-kontsolen arloan euskaraz ez du presentziarik, eta PCan eta Interneten jokatzen diren jokoak baino ez ditugu euskaraz. Espero dezagun berandu baino lehen alor guztietan aurkitu ahal izatea euskarazko jokoak gure seme-alabentzat.

